



**AIARAKO UDALAK 2020ko ABENDUAREN 7an EGINIKO EZOHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

**PRESIDENTEA**

Gentza Alamillo Udaeta jn

**ZINEGOTZIAK**

Iñigo Pinedo Vadillo jn.  
Montse Angulo Solloa and.  
José Antonio Bartolomé Pesquera jn.  
Itxaso Gorbeña Allende and.  
Unai Campo Arenaza jn.  
Susana Martín Benavides and.  
Karmele Población Martínez and.  
Marian Mendiguren Mendíbil and.  
Koldo Mendioroz Goldaraz jn.  
Iratxe Parro Uzquiano and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeiko abenduaren zazpian, hamazazpiak eta hamar direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas andrea da idazkaria.

**IDAZKARIA**

M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak ongiatorria eman die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

**1.- 2020rako udal-aurrekontuaren kreditu-transferentziarako 1/2020 zenbakiko espedientea.**- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio 2020rako udal-aurrekontuaren barneko kreditu-transferentziaren proposamena. Horrek honako hau dio:

***“KREDITU-TRANSFERENTZIARAKO PROPOSAMENA***

***IKUSI DA.-*** Kreditu-transferentziarako espediente bat izapidetzeko beharra, 2020rako aurrekonturako hasiera batean ezarritako diru-esleipena transferitzeko, 336.602002 aurrekontu-aplikazioan. Udalak egingo duen inbertsio gisa sartuko da, Lantenoko Administrazio-batzordearekin hitzarmen bat sinatzeko, erakunde horrek aipatutako eskolako altzariak konpontzeko obra diruz laguntzeko, mapa jarraituen bilkariak baitituzte.

***AINZAT HARTU DA.-*** 336.602001 aurrekontu-aplikazioan 2.000,00 euroko zenbatekoko kreditua dagoela eskuragarri.

***IKUSI DA.-*** Udalerrri osoko Ondare Historiko Artistikoa gordetzeko interes publikoa, eta jarduketa hau bertan dagoela inkardinatuta.

Udalbatza Osoari proposatu zaio honako erabaki hau hartzea:

1) 2020 ekitaldiko 1 zenbakiko espedientea onestea, kredituak transferitzeko erregimenean, honela:



A) Murriztu beharreko Gastuen Egoera aplikatzea:

<u>Partida</u>	<u>Izena</u>	<u>Kreditu eskuragarria</u>	<u>Murriztu beharreko zenbatekoa</u>
336.602001	ONDARE HISTORIKOAREN DIBULGAZIOA	2.000,00 €	2.000,00 €
<b>Kredituaren murrizpena guztira:</b>			<b>2.000,00 €</b>

B) Areagotu beharreko Gastuen Egoera aplikatzea:

<u>Partida</u>	<u>Izena</u>	<u>Hasierako kreditua</u>	<u>Areagotzea</u>
943.734002	ESKOLAKO ALTZARIAK KONPONTZEKO OBRARENTZAKO LANTENOKO ADMINISTAZIO- BATZORDEAREN DIRULAGUNTZA	0,00 €	2.000,00 €
<b>Kredituaren areagotzea guztira:</b>			<b>2.000,00 €</b>

2.) Kontu-hartzaitzak 2020rako Erakundearen Aurrekontuaren Gastuen Egoeraren aldaketak gauzatu ditzala. Horiek espediente honetan sortu dira eta berehalakoan sartu beharko dira indarrean, onespren-erabakia hartu ondoren, 2019rako udal honen Aurrekontua Gauzatzeko Arauren 13.7 artikuluan ezarritakoaren arabera". Udalbatzak onetsi beharreko Kreditu Transferentziako Espedienteen izapidetzeak indarrean sartuko dira onespren-erabakia hartu ondoren. Horretarako ez da beharrezkoa izango martxoaren 26ko 3/2004 Foru Arauaren 15., 17. eta 18. artikuluetan eskatutako ondorengo izapidetzea (hau da, ez du publizitate-betebeharririk izango eta ez zaio Foru Aldundiari bidali beharko)".

ALKATE-UDALBURUA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

*Elektronikoki sinatutako dokumentua."*

Espediente honen aldeko irizpena eman zuen Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Araubidea Eta Kontuen Berezia Informazio Batzordeak 2020ko azaroaren 30ean eginiko bilkuran.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan:.

1.- Onestea 2020 ekitaldiko kreditu-transferentziako 1 zenbakiko espedientea, honako modu honetan:



A) Murriztu beharreko Gastuen Egoera aplikatzea:

<u>Partida</u>	<u>Izena</u>	<u>Kreditu eskuragarria</u>	<u>Murriztu beharreko zenbatekoa</u>
336.602001	ONDARE HISTORIKOAREN DIBULGAZIOA	2.000,00 €	2.000,00 €
<b>Kredituaren murrizpena guztira:</b>			<b>2.000,00 €</b>

B) Areagotu beharreko Gastuen Egoera aplikatzea:

<u>Partida</u>	<u>Izena</u>	<u>Hasierako kreditua</u>	<u>Areagotzea</u>
943.734002	ESKOLAKO ALTZARIAK KONPONTZEKO OBRARENTZAKO LANTENOKO ADMINISTAZIO- BATZORDEAREN DIRULAGUNTZA	0,00 €	2.000,00 €
<b>Kredituen areagotzea guztira:</b>			<b>2.000,00 €</b>

2.) *Kontu-hartzaitzak 2020rako Erakundearen Aurrekontuaren Gastuen Egoeraren aldaketak gauzatu ditzala. Horiek espediente honetan sortu dira eta berehalakoan sartu beharko dira indarrean, onespren-erabakia hartu ondoren, 2019rako udal honen Aurrekontua Gauzatzeko Arauren 13.7 artikuluan ezarritakoaren arabera". Udalbatzak onetsi beharreko Kreditu Transferentziako Espedienteak izapidetzeak indarrean sartuko dira onespren-erabakia hartu ondoren. Horretarako ez da beharrezkoa izango martxoaren 26ko 3/2004 Foru Arauaren 15., 17. eta 18. artikuluetan eskatutako ondorengo izapidetzea (hau da, ez du publikitate-betebeharririk izango eta ez zaio Foru Aldundiari bidali beharko)".*

**2.- Kreditu Gehigarriko 5/2020 zenbakiko espedientearen berri ematea, eta Idazkaritza Kontu-hartzaitzaren txostena jakinaraztea Aurrekontu-egonkortasuna hausteagatik ezarriko diren ondorioen inguruan.-**

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio kreditu gehigarriaren 5 zenbakiko espedientea. Hori diruzaintzako gerakin likidoarekin finantzatuko da eta 2020/553 Alkatetza Dekretuaren bidez onetsi zen. Horren testua honako hau da:

### **“ALKATETZA DEKRETUA**

**IKUSI DA.-** Diruzaintzako gerakinaren zati bat erabili behar da, Gastu Orokorrak atalekoa eta 2019ko likidazioak emandakoa. Xedea da gastuen partida bat sortzea ezinbesteko ordainketak ordaintzeko, eta ezin delako 2021eko aurrekontua egin arte itxaron.

**AINZAT HARTU DA.-** Honako hauetan xedatutakoa: Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundearen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua eta Tokiko araubidearen oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.



Alkatetzak **EBATZI DU:**

**Lehenengoa.**- Onestea ondoren zehaztutako kreditu gehigarriak:

<b>PARTIDA</b>	<b>IZENA</b>	<b>ZENBATEKOA (€)</b>
230.120.000	GIZARTE-LAGUNTZAILEAREN ORDAINSARIAK	50,00 €
920.120.000	FUNTZIONARIOEN ORDAINSARIAK	18.440,27 €
920.141.001	LANGILEAK KONTRATATZEA	6.200,00 €
920.160.001	GIZARTE SEGURANTZA	5.000,00 €
943.734.002	ESKOLAKO ALTZARIAK HORNITZEKO LANTENOKO ADMINISTAZIO-BATZORDEAREN LANKIDETZA-HITZARMENA	1.309,35 €
323.601.006	IKASTOLAKO BEROKUNTZARAKO PROIEKTUAREN AURREKONTUA EGUNERATZEA	205,00 €
<b>ZENBATEKOA OSOTARA:</b>		<b>31.204,62 €</b>


Zenbateko hori ondoren zerrendatzen diren baliabideekin finantzatuko da; beraz, espedientea orekatuta dago eta ez da defizitik sortzen:

<b><u>DIRU- SARREREN PARTIDA</u></b>	<b><u>IZENA</u></b>	<b><u>ZENBATEKOA (€)</u></b>
87001	DIRUZAINZAREN SOBERAKINA GASTU OROKORRETARAKO	31.204,62 €
	<b>GUZTIRA .....</b>	<b>31.204,62 €</b>

Onetsitako kreditu gehigarrien zenbateko osoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrerara guztien parekoa da.

**Bigarrena.**- Kontu-hartzaitzak aldaketak egin ditzala aurrekontuaren gastu-egoeran, eta aldaketon eragina berehalakoa izan dadila.

**Hirugarrena.**- Dekretu honen berri ematea Udalbatzari, egiten den hurrengo bilkuran.



ALKATE-UDALBURUA,

Nire aurrean, IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: María Del Carmen Rojo Pitillas.

BEHIN-BEHINEKO DIRUZAINA,

Sin.: Clara Furundarena Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua

Era berean, Udalbatzari Kontu-hartzaitzaren txostenaren berri eman zaio. Hori 2020ko azaroaren 25ekoa da eta aurrekontu-egonkortasuna haustearen ingurukoa da, aipatutako kreditu gehigarria finantzatzeko diruzaintzaren gerakina erabiltzeagatik. Horrek honako hau dio:

### **KONTU-HARTZAIETZA TXOSTENA**

**GAIA:** *Gastu orokorretarako aurrekontu-aldaketa, diruzaintzako gerakinaren kargura.*

Aiarako Udaleko Kontu-hartzaitza karguari dagozkion erantzukizunen arabera eta Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak (17/2017 Foru Arauak aldatutakoa) diruzaintzako gerakinaren erabileran egindako aldaketak kontuan hartuta, gerakinaren kontura kreditu aldaketa bat onetsi ahal izateko kontu-hartzaitza txosten bat aurkeztu beharko zaio Udalbatzari, egonkortasunaren helburua bete ez dela egiaztatzeko. Horrez gain, honako txosten hau egin da, bi eranskin dituen:


- I. Eranskina: hainbat kreditu gaitzeko Gerakina erabiltzeko proposamena.
- II. Eranskina: gastuak diruzaintzako gerakinarekin finantzatzearen bidez aurrekontu-egonkortasuna betetzeko kontu-hartzaitzaren txostena.

### **I ERANSKINA: GERAKINA ERABILTZEKO PROPOSAMENA**

2019ko LIKIDAZIOKO GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAREN GERAKINA, ESPEDIENTE HAU EGIN BAINO LEHEN GASTATU EZ DENA: 143.535,55 €. (Gainerakoa honako honetarako erabili da: kreditu gehigarriko 1/2020 zenbakiko espedientea (40.000,00 €), kredituaren gaineratikoa sartzeko 1/2020 zenbakiko espedientea (8.920,60 €), kredituaren gaineratikoa sartzeko 4/2020 zenbakiko espedientea (6.250,86 €), kreditu gehigarriko 2/2020 zenbakiko espedientea (262.877,06 €), kreditu gehigarriko 3/2020 zenbakiko espedientea (16.758,50 €) eta kreditu gehigarriko 4/2020 zenbakiko espedientea).

**ERABILERA-PROPOSAMENA: 31.204,62 €.**

<b>PARTIDA</b>	<b>IZENA</b>	<b>ZENBATEKOA (€)</b>
----------------	--------------	-----------------------



230.120.000	GIZARTE-LANGILEAREN ORDAINSARIAK	50,00 €
920.120.000	FUNTZIONARIOEN ORDAINSARIAK	18.440,27 €
920.141.001	LANGILEAK KONTRATATZEA	6.200,00 €
920.160.001	GIZARTE SEGURANTZA	5.000,00 €
943.734.002	ESKOLAKO ALTZARIAK KONPONTZEKO OBRARENTZAKO LANTENOKO ADMINISTAZIO-BATZORDEAREN DIRULAGUNTZA	1.309,35 €
323.601.006	IKASTOLAKO BEROKUNTZARAKO PROIEKTUAREN AURREKONTUA EGUNERATZEA	205,00 €
<b>ZENBATEKOA GUZTIRA:</b>		<b>31.204,62 €</b>

## **II. ERANSKINA: KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA EGONKORTASUNA EZ BETETZEAREN ONDORIOETARAKO**

### **I. TXOSTENAREN OINARRIAK**

*Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, 17/2014 Foru Arauak emandako idazketan, aurrekontu-egonkortasunaren helburua, zor publikoaren helburua edo gastu-araua betetzen ez bada, ez betetzea gauzatu duen Administrazioak Ekonomia eta Finantza Plan bat egingo du, uneko urtean helburuak eta hurrengo urtean bete ahal izateko.*

*Horrez gain, Foru Arau horren 7.3 artikulua adierazten du aurrekontu egonkortasunaren helburua ez betetzea diruzaintzako gerakinen bidez finantzatutako gastuen ondorio bada, ekonomia eta finantza planaren ordezkari kontu hartze zereginak burutzen dituen organoaren txostena aurkeztu beharko zaiola dena delako udalbatzari horren berri emateko, bai eta toki korporazioaren finantza iraunkortasunaren analisia eta ebaluazioa ere; azken horrek gutxienez honakoak jasoko ditu:*

- a) Erakundearen zein haren menpeko erakundearen aurrekontu egonkortasunaren helburuak.*
- b) Diru-sarreraren eta gastuen partida nagusien proiektzioa, joera bilakaera aintzat harturik, hau da, aldaketa onartzen ez duten politikak, adibidez, dagokion aldirako aurreikusitako neurrien inpaktua.*
- c) Diru sarreraren eta gastuen proiektzioaren oinarri izango diren suposizio nagusiak.*
- d) Diruzaintzako gerakinak agortzeko momentuan dagoen aurrekontu eta finantza egoera.*



e) *Hala badagokio, inbertsioaren funtzionamenduak gastu arruntean izango duen eragina.*

*Txostena kreditu aldaketaren espedientearen zati izango da.*

*Udalbatzaren bileraren akta, kontu-hartzailatza organoaren txostenarekin eta euskarri gisa balio duen gainerako dokumentazioarekin batera, Arabako Foru Aldundiko Lehendakaritza Sailari igorriko zaio, eta hark, 30 eguneko epean, neurri osagarriak hartzeko beharrezkoa den informazio osagarria eskatu ahal izango du. Horien artean aurki daitezke, besteak beste, ekonomia- eta finantza-plana egiteko eskatzea, toki-erakundearen finantza-iraunkortasuna bermatze aldera.*

*Epe hori igaro bada, baina Arabako Foru Aldundiak berariaz ebazpenik eman ez badu, espedienteaz izapidetzen jarraitu ahal izango da.*

### **ARLO SUBJEKTIBOA:**

*Txosten honen bidez, Aiarako Udalean diruzaintzako gerakina erabilita, txosten honen parte den aurrekontu-aldaketaren finantzazioak eragindako ezegonkortasun egoera aztertu nahi da.*

### **XEDEAK:**

*Diruzaintzako gerakinaren bidez proposatutako aurrekontu-aldaketaren finantzazioak egonkortasun-printzipioa hausten du, nahiz eta ez betetze hori ez den egiturazkoa, koiunturazkoa baizik.*

*Horretarako, aurrekontu magnitudeak aztertu behar dira, eta txosten honen xedea da honako helburu hauek egiaztatzea:*

- *Aurrezki garbi positiboa*
- *Diruzaintzako gerakin positiboa*
- *Ekitaldi bakoitzean ezarritako mugak baino baxuagoa den ezarritako zorpetze-maila*
- *Aurrekontu-egonkortasun finkatua superabitarekin edo finantzaketa-gaitasunarekin (SEC terminoetan)*
- *Gastu-araua betetzea*

*Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Egonkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera, 17/2014 Foru Arauaren idazketa aintzat hartuta, txosten hau honela egituratuko da:*

*1.- Egungo egoeraren diagnostikoa: erakundearen aurrekontuaren egonkortasunaren helburuak betetzen diren edo ez aztertuko da.*

*2.- Gastu eta diru-sarreraren egoeraren proiektzioa*

*3.- Inbertsioaren funtzionamenduak gastu arruntean izango duen eragina.*

## **II. EGUNGO EGOEREAREN FINANTZA-DIAGNOSTIKOA: AURREKONTU-EGONKORTASUNEN XEDEAK**



2019 ekitaldiari dagokion onetsitako azken likidazioan lortutako datuetatik honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

<b>MAGNITUDEA</b>	<b>ZENBATEK OA</b>	<b>BETETZEA/EZ BETETZEA</b>
<i>Aurrezki garbi doitua</i>	<b>361.604,53 €</b>	<b>BAIEZKOA</b>
<i>Diruzaintzaren soberakina gastu orokorretarako</i>	<b>590.384,93 €</b>	<b>BAIEZKOA</b>
<i>Aurrekontuaren emaitza</i>	<b>272.839,66 €</b>	<b>BAIEZKOA</b>
<i>Zorpetze-maila</i>	<b>0</b>	
<i>Aurrekontu-egonkortasuna</i>	<b>305.675,20 €</b>	<b>BETETZEAREN SUPERABITA</b>
<i>Gastu-araua</i>	<b>20.388,08 €</b>	<b>% 4ko EZ BETETZEA</b>

Abuztuko araua ez betetzeari dagokionez, Udalbatzak 2020ko maiatzaren 21ean egin zuen osoko bilkuran, ez betetze horri buruzko kontu-hartzailletza txostenaren berri eman zen; horrek honako hau dio:

**“...8.- GASTU-ARAUA BETE EZ DELA AZTERTZEKO TXOSTENA.**

Ekainaren 18ko 17/2014 Foru Arauak berridatzitako Toki Erakundeen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruz 38/2013 Foru Arauaren 7. artikuluko 4. atalean gastu-araua betetzen ez duten erakundeek, planaren ordeztu, Kontuhartzailletzak sinatutako komunikazioa bidali ahaliko diote udalbatzari, eta hartan, erakundearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko da. Horretarako, ordea, erakundeek baldintza hauek ere bete behar dituzte:

- Diruzaintzako gerakinak eta aurrezki garbi positiboa erabilia, ez-betetzea gertatu den ekitaldiko aurrekontua likidatu izana edo, hala badagokio, likidatzeko aurreikuspena izatea.

- Hurrengo ekitaldirako ezarritako defizitaren eta zor publikoaren helburuak betetzea.

Txosten honen edukiaren arabera eta 2019 ekitaldirako udal honen likidatzea osatzen duten gainerako dokumentuen arabera, defizit eta zor publikoko helburu guztiak betetzen dira, eta Diruzaintzaren Gerakina eta aurrezki garbi positiboa lortzen da.

Gastu-araua hautsi egin da gastuak onetsi egin direlako, gastu arruntetarako zein Udalaren berezko baliabideekin inbertsio-gastuetarako. Edonola ere, Udalak bere berezko baliabideekin aipatutako hazkundera bere gain hartu arren, aurrezki garbia positiboa da eta horren zenbatekoa 361.604,53 euro da. Ondorioz, horrekin bermatu egiten da erakunde honen finantza egonkortasuna, txosten honetako datuetan adierazten den moduan...”

**III. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN EGOERA.**

Epe honetarako Finantza Plan Ekonomikoan zenbatekoak erakustea ahalbidetuko diguten aldagaiak eta neurriak zehazteko, honako EGOERA posible hau ezarri da:

- Krisialdi gogorrean gaude Covid-19 pandemiagatik; izan ere, horrek 2020rako hainbat tokiko diru-sarrerera murriztu ditu, batez ere TEFFFean lortutakoei dagokienez. Bestalde, udal-obretarako dirulaguntzak jaso ditugu, LEADER 2019 programari esker; ondorioz,





*murrizketen eragina lausotu du. Era berean, beste dirulaguntza-eskaera bat izapidetuko da, aldaketa-espeditente honen gastua estaltzeari dagokion dirulaguntza gisa.*

- *Gastuei dagokienez, arlo honetan murrizketen mantentzearekin hasi behar dugu. Gainera, gastuetan zuhurtzia-irizpidearekin jarraituko dugu, langileen gastuei zein beste gastu batzuei dagokienez, adibidez, estatuko aurrekontu orokorren legetatik sortutakoak edo aurrekontu-egonkortasunerako helburuak betetzean sortutako murrizketetatik sortutakoak (Gastu-araua, Gastu-muga, Finantza-egonkortasuna eta jasangarritasuna).*

### **MAGNITUDE NAGUSIEN GARAPENA.**

*Ekitaldietan adierazitako aztertutako magnitudeen garapena honako hau da:*

<b>HELBURUAK</b>	<b>2.018</b>	<b>2.019</b>
<b>Aurrekontu-egonkortasuna</b>	302.088,60	305.675,20
<b>Diru-sarreraren % egonkortasuna Ez finantzazkoak</b>	% 12,64	% 12,75
<b>Gastu-araua</b>	<b>-122.672,80</b>	<b>20.388,08</b>
<b>Zorrak</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>Aurrezki garbi doitua</b>	553.209,91	<b>361.604,53</b>
<b>Diru-sarrera ohietako aurrezki garbiaren %</b>	% 24,90	% 15,56
<b>DIRUZAINZAKO SOBERAKINA</b>	588.263,66	<b>590.384,93</b>

#### **IV. DIRUZAINZAKO GERAKINA AGORTZEKO UNEAN AURREKONTUAREN ETA FINANTZEN EGOERA. I-C.1 DIRUZAINZAKO GERAKINA.**

*Diruzaintzako gerakinak erakundeak osotara bildutako epe motzeko likidatzea islatzen du, epe zehatz batean, eta hori etorkizunean gastu bat finantzatzeko eskuragarri dago.*

##### **Doitutako diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako.**

*Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina aurrekontua aplikatzen duten hartzekodunen datuen arabera doitzen da, baita ordaintzeke dauden diru-sarreraren itzulerekin ere. Horrek magnitude honetako egoeraren irudi errealagoa ematen digu. Magnitude honek erakundearen epe motzean dugun likidatze errealaren informazioa ematen digu.*

##### **III-C.2 AURREZKI GARBIA.**

*Aurrezki garbiak Udalak zorpetzeko duen gaitasuna adierazten digu. Aurrezki garbia negatiboa bada, erakundeak ez du inongo gaitasunik epe luzerako mailegu berririk hartzeko. Aurrezki garbia positiboa bada, jakinarazten digu epe luzerako mailegu berriak hartzeko gaitasuna dugula. Gainera, zenbatekoa eta ditugun baldintzak ere zehaztu daitezke. Edonola ere, magnitude honek erakundearen zorpetze-gaitasunaren informazio fidelagoa eman dezan, Foru Arauan ezarritakoaren arabera kalkulaturako zenbatekoa ezohikoak diren eta errepikatzen ez diren diru-sarreraren zenbatekoa ondorioztatzearen bidez egin beharko litzateke.*

##### **III-C.3 FINANTZA-ERAKUNDEEKIKO ZORRA.**



*Zor biziak erakusten du erakundearen finantza-kaudimena zein den. Kaudimenaren inguruko arazoak gehiegizko zorpetzearen ondorio izan daitezke, eta, horren ondorioz, finantza karga handitu egiten da, gainerako gastu arruntarekin batera. Horregatik, ezinezkoa da erakundearen diru-sarrera arruntek irenstea, aurrezki garbi negatiboa sortzen baitute.*

### **III-C.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNA.** <

*Aurrekontu-egonkortasunak erakundearen finantza-gaitasunaren/beharraren berri ematen digu. Horrek, zeharka, esan nahi du mugatu egiten dela zorpetzea urtero amortizatzen den kopuruaren gainetik handitzea (SEC 95 terminoetan kalkulatua). Entitateak finantzaketa beharra badu (gastu ez-finantzarioak sarrera ez-finantzarioak baino handiagoak dira), horrek esan nahi du erakundeak kanpoko finantzaketa (zorpetzea) behar duela bere gastuei aurre egiteko.*

*Erakundeak finantza-gaitasuna badu (gastu ez-finantzarioak sarrera ez-finantzarioak baino txikiagoak dira), hori bera erakundearen bere zorpetzea gainditzeko duen zenbatekoari gehituko zaio.*

### **III-C.5 GASTU-ARAU.**

*Gastu-araua zerga-arau bat da, eta horren bidez, gastu konputagarria mugatu nahi da. Beraz, gastu hori ez da ekonomia-ekitaldi batetik bestera aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako onetsitako ehunekoa baino gehiago handituko. Hori eginda, aurrezki publiko handiagoa lortu nahi dugu, diru-bilketa handitzeko neurri osagarriekin batera ez doan gastuaren hazkunderari muga ezartzearen bidez. Magnitude hori ekitaldi honetarako ezarri da 2019rako Aurrekontuaren Likidatzearekin.*

### **III-D. MAGNITUDEEN GARAPENAREN INGURUKO ONDORIOAK.**

*Gastu eta diru-sarreraren egoeren kapituluaren landutako datuen arabera, aintzat hartu da Diruzaintzako Gerakinarekin finantzatutako aurrekontu-aldaketaren finantzaketa ez dela erakunde honetzako egiturazko desorekaren arrazoi izango; egoeraren arabera izango da eta xedek urte bateko epean beteko dira berriz, Finantzaketa Plan Ekonomiko bat egin behar gabe.*

## **V. INBERTSIOAK FUNTZIONATZEA ERAGINGO DUEN TALKA OHIKO GASTUAREKIKO**

*Landutako datuen artean, aintzat hartu da aurrezki garbi positiboa egongo dela. Ondorioz, etorkizunean aldaketa honek finantzatutako duen gastuaren (edo inbertsioaren) ondorioz sor daitekeen ohiko gastua erakunde honetan egondako ohiko diru-sarrerek estali ahal izango dute. Era berean, zorpetze-ratioa aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako ezarritako xedearen azpian ezarri beharko da (ez dago zorpetzerik). Beraz, bi datuak batzean, aurreikusitako daiteke ez dela horren etorkizuneko finantza-egonkortasuna arriskuan jarriko.*

*Horrez gain, aintzat hartu behar da proposatutako aldaketek berez ez dutela etorkizuneko ekitaldien ohiko gastuan hazkunde handirik sortuko.*



*Txosten hau kreditu aldaketaren espedientearen barnean egongo da.*

*Udalbatzaren bilkurako akta, kontu-hartzaitza organoaren txostenarekin eta euskarri gisa balio duen gainerako dokumentazioarekin batera, Arabako Foru Aldundiko Tokiko Erakundeez arduratzen den Sailari igorriko zaio, eta hark, 30 eguneko epean, neurri osagarriak hartzeko beharrezkoa den informazio osagarria eskatu ahal izango du. Horien artean aurki daitezke, besteak beste, ekonomia- eta finantza-plana egiteko eskatzea, toki-erakundearen finantza iraunkortasuna bermatze aldera.*

*Arespalditzan.-*

*IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA.- Sin.- Carmen Rojo Pitillas*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua.*

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**3.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea.-** Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzeari buruzko proposamena.

**“ERABAKI- PROPOSAMENA**

**IKUSI DA.-** 2020 ekitaldiari dagokion Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2020ko ekainaren 15eko osoko bilkuran onetsi zen, Udaleko 2020ko aurrekontu orokorraren eranskin gisa.

**AINTZAT HARTU DA.-** Aipatutako Plan Estrategikoaren V. eranskinean Administrazio Batzordeek jasoko dituzten dirulaguntzen jarduketak jasotzen dira.

**AINTZAT HARTU DA.-** Aiarako Udalaren interes publikoa udalerrri osoko ondare historiko-artistikoa mantendu eta sustatzeko.

**IKUSI DA.-** Lantenoko Administrazio Batzordea Lantenoko Eskolari dagozkion altzariak berritzeko obra egiten ari da, mapa jarraituen bilkariak dituztenak; horretarako, Aiarako Udalari laguntza eskatu dio.

Horregatik guztiagatik, udalbatza osoari proposatu zaio honako erabaki hau hartzea:

Dirulaguntzen Plan Estrategikoko V. eranskina aldatzea (Administrazio Batzordeek jasotzen duten dirulaguntzen jarduera), eta eranskin horretan Lantenoko Administrazio Batzordeari honako zuzeneko dirulaguntza hau gehitzea:

Lantenoko Administrazio Batzordeari zuzeneko dirulaguntza ematea Lantenoko Eskolako bi eskolako altzari berritzeko. Altzari horiek , 3.309,35 euroan, eta 2020ko Udal-aurrekontuko 943.734002 aurrekontu-aplikazioaren kontura.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.”

Espediente honen aldeko irizpena eman zuen Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Araubidea eta Kontuen Berezia Informazio Batzordeak 2020ko azaroaren 30ean eginiko bilkuran.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, erabaki-proposamena idatzi den moduan onestea.



**4.- Erabaki proposamena, Ur Partzuergoak Murga industrialdeko uraren ziklo integralaren zerbitzua kudeatzeari buruzkoa.-** Jarraian, Udalbatzari Murga industrialdeko hornidura zerbitzua emateari buruzko erabaki-proposamenaren berri eman zaio. Horrek honako hau dio:

### **“ERABAKI-PROPOSAMENA**

Aiarako Udalak Murga industrialdean ur-hornikuntzako zerbitzua emateari buruzko gaiari dagokionez, Udalbatzak jarraian adierazitako erabakia hartzea proposatu du. Zerbitzu horren barnean honako hauek sartzen dira: “adukzioa” (lehen mailako sarea hornitzea), “banatzea” (bigarren mailako sarea hornitzea), saneamendua, “estolderia” (bigarren mailako sarearen saneamendua) eta “intertzepzio/araztea” (lehenengo mailako sarearen saneamendua).

**IKUSI DA** CAKUak Tokiko Gobernu Batzordearen erabakiaren egiaztagiria helarazi ziola erakunde honi, 2020ko urriaren 16an eginiko bilkuran.

**AINTZAT HARTU DA** CAKUak proposatutako erabakia arrazoiturik hartzeko beharrezko justifikazio tekniko, ekonomiko eta juridiko nahikoa aurkeztu duela.

**AINTZAT HARTU DA** CAKUak berak emandako informazioan ondorioztatu daitekeela etorkizunean zein funtzionaltasun eta jasangarritasun ekonomiko-finantzazioa izango duen; gainera, ikusi daiteke etorkizunean duen egoera juridiko-administratibo “bereziari” dagokionez, beste aukera hobe batzuk daudela segurtasun juridiko handiagoarekin eta kaudimen handiagoarekin. Beraz, baieztatu daiteke ez litzatekeela interes publikokoa izango dagoena horrela mantentzea.

**AINTZAT HARTU DA** barneko zaugarritasun-egoera etengabea dagoela, ahalik eta erabiltzaile eta kontsumo gehien daramatzaten erakundeek CAKUa banantzeak edo bertan behera uzteak ekarriko lukeen eraginari lotua.

Udaleko Idazkaritzak horren inguruko txosten bat igorri du.

**AINTZAT HARTU DA** honako hauetan ezarritakoa: abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen Zioen Azalpena eta 2. artikuluko 2. atala eta 5. atalaren azken paragrafoa, baita 9., 10., 12., 17.1.15, 94., 97.3 eta 104.2 artikulua; apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. eta 36. artikulua eta Arabako Lurralde Historikoko Herri-batzarrei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren 6. artikulua.

**AINTZAT HARTU DIRA** Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 118. artikulua eta hurrengoak, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 104. artikulua.

**AINTZAT HARTU DA** honako hauetan ezarritakoa: 1955eko ekainaren 17ko Dekretua; apirilaren 2ko 7/1985 Legea; apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua; martxoaren 20ko 11/1995 Foru Araua; otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua; abenduaren 13ko 38/2013 Foru Araua; abenduaren 27ko 27/2013 Legea; otsailaren 11ko 4/2015 Foru Araua.

Horregatik guztiagatik, udalbatza osoari proposatu zaio honako erabaki hau hartzea:



**LEHENENGOA.**- Kantauriko Urkidetza Partzuergoa (CAKU) den organo eskudunari proposatzea zerbitzua uztea, bere estatutueta 42. artikuluko 1. ataleko d) epigrafean aipatzen den arrazoiagatik; izan ere, CAKUk ondorioztatu duenez, partzuergoaren beraren nahiz partzuergoa osatzen duten erakundeen interes publikoaren kontratatzat jotzen da haren jarraipena, espedientean dauden txosten eta dokumentuetan oinarrituta.

**BIGARRENA.**- Kantauriko Urkidetza Partzuergoa (CAKU) den organo eskudunak ez badu partzuergoa desegitea edo iraungitzea erabakitzen, bere estatutueta 42. artikuluko 1. ataleko d) epigrafean aipatzen den arrazoiagatik, Aiarako Udala Kantauriko Urkidetza Partzuergotik (CAKU) bereiziko dira, azaldutako arrazoiengatik. Gainera, bereizketa erabaki hau partzuergoko gobernu-organoren gorenari igorriko zaio, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 125.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aiarako Udaleko alkate-udalburuari berariaz emango zaio baimena eta ardura dagozkion legezko ekintza guztiak egin ditzan, aipatutako akordioa errealitate bihurtzeko. Ardura horien barnean, hala badagokio, beharrezko bereizketa-kuota ezarri, negoziatu eta onestea egongo da, baita Partzuergoak berak emandako zerbitzuaren emateko trantsizio-epea negoziatzea ere. Horrez gain, bereizketaren data ezarri beharko du eta beharrezkoak diren legezko ekintza guztiak ezarri eta gauzatu – administrazio-egoitzan zein dagozkion lege-egoitzan- Udalaren eskubideak defendatzeko. Era berean, Udalbatzari egindako gutzia jakinarazi beharko dio.

**HIRUGARRENA.**- CAKUren Batzar Nagusirak desegitea onetsiz gero, organo horrek “likidaziorik gabeko desegitea” modalitatean desegitea erabakitzea proposatzen da, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 127. artikuluen 5. paragrafoan aurreikusitako moduan. Horrek esan nahi du aktiboak eta pasiboak erabat lagako zaizkiola juridikoki egokia den sektore publikoko beste erakunde bati, non CAKU osatzen zuten erakundeek Uraren ziklo integralarekin lotutako zerbitzuak emateko sartzeari erabakitzen baitute.

Kantauriko Urkidetza Partzuergoa (CAKU) **izanen da arduradun bakarra eta bertako funtzionario edo lan-kontratadunek lan harremanean jarraituko dutela bermatu beharko du**, atxikipen, subrogazio edo zuzenbidean baliozkoa den beste edozein formularen bidez.

**LAUGARRENA.**- Murga industrialdeko uraren hornidura, saneamendu eta arazketarako udal zerbitzuaren jarraipena onestea. Figura horietako baten bidez, partzuergoaren bidez alegia, Eusko Legebiltzarraren apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 101. eta 104. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera; izan ere, ezinezkoa da zerbitzua zuzeneko kudeaketaren bidez ematea, CAKUk aurkeztutako dokumentazioan azaldutako bideragarritasun-, eraginkortasun- edo eraginkortasun-arrazoiengatik.

**BOSGARRENA.**- Onestea Aiarako Udala “Arabako Ur Partzuergoa” (URBIDE) partzuergoan sartzeari eta bertan indarrean dauden estatutuak onartzea.

Aipatutako Partzuergo atxikitzea udalerriko Murga industrialdeko auzokide eta erabiltzaileei zerbitzua ematearen arabera egingo da. Honako zerbitzu hauek eman beharko dira:



- Lehenengo mailako Sareko Ur-hornidura, “Alta” hornidura edo Adukzio Zerbitzua: Biltze edo argiztapen lanak, urtegia, garraioa, tratamendua eta azken erabiltzaile handietaraino edo banaketa-sareko biltegi nagusietaraino eramatea.
- Ur-hornidura bigarren mailako sarean, hornidura “baja” egoeran edo banaketa zerbitzuan: Biltegi (lehenengo mailako sarean hornitutako ura) eta hodi bidez azken erabiltzaileen instalazio pribatuekin (etxeak, dendak, industriak eta gainerako establezimenduak) lotzen duten hartuneetara banatzeko funtzioak biltzen ditu.
- Saneamendua Lehenengo mailako Sarean edo Intertzeptazio eta Arazketa Zerbitzuan: Kolektore eta hodi biltzaile orokorrak (estolderia hondakin-uren araztegiekin lotzen dutenak), arazketa-sistemak (hondakinak tratatzeko eta ezabatzeko instalazio erantsi guztiak barne) eta hustubideak (araztutako ura ur-ingurunera itzultzen dutenak) hartzen ditu.

Saneamendua bigarren mailako sarean edo estolderian: Etxeetako eta industriako hartuneetako hondakin urak biltzen ditu, baita inbormal eta hustubideetakoak ere, eta oinarrizko saneamendu sarera edo, hala badagokio, ur ingurune naturalera isurtzen ditu.

Atxikitzeak esan nahi du Arabako Ur Partzuergoak (URBIDE) ezarritako eta horren Batzar Nagusiak 2019ko urriaren 28ko bileran adostutako baldintzak berariaz onetsitako direla.

“Likidaziorik gabeko uztea” gertatzekotan, URBIDERI emandako zenbateko ekonomikoak ondasun eta eskubideen banku-saldu eta inbentarioen dagozkien ziurtagiriek egiaztatu beharko dira eta horren aktiboen barne sartuko dira. Edonola ere, horien sailkapena eta aurrekontu-partida eta indarrean dauden kontabilitate publikoko arauen arabera dagokion kontabilitate-partidan egozte gorabehera, aipatutako zenbatekoak oso-osorik gauzatu beharreko jarduketetara egongo dira loturik, CAKUaren erakundeek URBIDERI bertan sartzegatik egindako ekarpenetan.

Aipatutako jarduketak funts horiekin gauzatzean, ezingo da Arabako Ur Partzuergoak onetsitako etorkizuneko ekintzak esleitzean eragin ekonomikorik izan, horiek funts orokorrekin finantzatzen badira.

**SEIGARRENA:** Erakunde honen ordezkari gisa izendatzea GENTZA ALAMILLO UDAETA jn. URBIDE Partzuergoa eta horren administrazio- eta gobernu-organoetan. Horren ordezkaria izango da JOSÉ ANTONIO BARTOLOMÉ PESQUERA jn.

**ZAZPIGARRENA.-** Berariazko baimena ematea alkate/udalburuari erabaki hau osorik bete dadin beharrezko dokumentu publiko edo pribatu guztiak sinatu eta beharrezko jarduketa guztiak egiteko, tokiko erakunde hau “Arabako Ur Partzuergoan” (URBIDE) sartzeko.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.-”

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du EH Bildu udal-taldeak 2020ko azaroaren 27an udalean Udalbatzaren erabakirako proposamena aurkeztu zuela, eguneko gai-zerrendako puntu honen ingurukoa. Gaur goizean idatzi berri bat aurkeztu du hainbat gogoetarekin. Ezohiko bilkura bat denez, eguneko gai-zerrenda dagoen bezala mantendu behar da; halere, Toki erakundeen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren araudiari buruzko



azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 97.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, Batzorean onetsitako irizpena aldatzeko proposamen gisa hartu daiteke, hau da, zuzenketa gisa. Beraz, lehenik eta behin EH Bilduk aurkeztutako proposamena bozkatuko da, eta, ondoren, Batzordearen Irizpena bozkatuko da, irizpena onetsi zuen Gobernu Batzordearen proposamenarekin batera.

EH Bildu udal-taldeak aurkeztutako proposamenak honako hau dio.

*“La Junta de Gobierno del Consorcio de Aguas Kantauriko Urkidetza ha solicitado a las entidades que la componen, entre ellas el Ayuntamiento de Aiara, que se pronuncien sobre la disolución o salida de dicho Consorcio, y su integración en el Consorcio de Aguas Urbide.*

*EH Bildu propone el siguiente acuerdo para su debate y aprobación en Pleno:*

- 1. El pleno del Ayuntamiento de Aiara, propone al presidente del Consorcio de Aguas Kantauriko Urkidetza el aplazamiento de las fechas tanto de la toma de decisión de las entidades que conforman el Consorcio como de la Asamblea General Extraordinaria.*
- 2. El pleno del Ayuntamiento de Aiara, insta al Consorcio de Aguas Kantauriko Urkidetza a diseñar una campaña de información junto con un proceso de participación abierto tanto a las entidades que lo conforman, como a todas sus vecinas y vecinos, con el fin de que se analicen realmente todas las diferentes alternativas existentes de cara a una correcta gestión del ciclo integral del agua en Aiaraldea.*
- 3. Se dará traslado de este acuerdo al Presidente del Consorcio Kantauriko Urkidetza.*

*Kantauriko Urkidetzako Gobernu Batzordeak partzuergoa osatzen duten erakundeei, besteak beste Aiarako Udalari, eskatu die partzuergoa desagitea edo bertatik ateratzeari buruzko eta Urbide Partzuergoan sartzeari buruzko iritzia eman dezatela.*

*EH BILDUK honako akordio hau proposatzen du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onartu dadin:*

- 1. Aiarako Udalaren Udalbatzak Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoko presidenteari proposatu dio Partzuergoa osatzen duten erakundeek erabakiak hartzeko epeak eta Ezohiko Batzar Nagusira atzeratu ditzan.*
- 2. Aiarako Udalaren Udalbatzak Kantauriko Urkidetzari eskatzen dio informazio-kanpaina bat diseina dezala, berau osatzen duten erakundeei eta herritar guztiei irekitako partaidetza-prozesu batekin batera, Aiaraldeko uraren ziklo integrala behar bezala kudeatzeko dauden aukera guztiak benetan azter daitezzen.*
- 3. Erabaki hau Kantauriko Urkidetzako lehendakariari helaraziko zaio.”*

Alkate jaunak hitza eman dio Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreari, argudioren bat eman nahiko balu bere proposamenaren inguruan.

Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andrearen eguneko gai-zerrendako puntu honi buruzko idatzi bat irakurri du. Horrek honako hau dio:



*“Joan den azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeria salatzeko egunean eta EH Bilduko zinegotziok eguneko jarduerak antolatzen ari ginen egunean, batzordeak egiteko ezohiko deialdia jaso genuen udaletik. Puntuetako bat Murgako industrialdea-Ur Partzuergoko uraren ziklo integralaren zerbitzuaren kudeaketari buruzko erabaki-proposamen bat zen.*

*Hurrengo egunean, batzordeak prestatzen hasi ginen, eta ikusi genuen lehen aipaturako batzordea 12 artxiboz osatuta zegoela. Horietako batzuk luzeak eta hizkera juridikoarekin idatziak ziren, eta horrek arretaz irakurtzea eskatzen zuen. Hurrengo egunean, 27an, eskaera bat egin genion udalari, uraren kudeaketaren gaiari buruz, aipaturako kudeaketari buruzko beste akordio-proposamen bat sar zedin, hura bozkatzeko.*

*Batzordeak egin zirenean, jakinarazi ziguten gure proposamena ez zela bozkatuko ezohiko osoko bilkuran, batzordeak baino 48 ordu baliadun lehenago bidali behar zelako.*

*Gure ustez, denbora horretan ezinezkoa da EAJk bozkatzeko proposatzen zuen akordioa behar bezala kudeatzea. Presa horiek ugariak dira CAKU desegitea eta Urbiden sartzeari onartzeak izan duen ibilbidean, eta, dirudienez, egin beharreko urratsaren ondorioei buruzko gogoeta saihestu nahi da. EH Bilduk gai hau mahai gainean jarri zenetik esan duena da denbora nahikoa behar dela sakon jorrazteko, alde onak eta txarrak kontrastatzeko, etorkizunean gure herritarrengan eragin handia izango duen akordioaz ari baikara.*

*Uraren kudeaketa eraginkorra jokatzeko ari gara, eta muturrak argitzeko behar adina denbora emateko moduko garrantzia duen kontua da hau. Urbiden erritmo behartuan sartzen jarraitzeak, praktikan, inplikaturako administrazioei informazioa eta eztabaidarako gaitasuna usurpatzea dakar.*

*Esango digutenez, gai hori aurreko foroetatik pasatu da, baina guztiok dakigu gai horri buruzko benetako eztabaida akordio bidez iritsi dela, bai ala ez, eta orduan piztu da eztabaida, ez lehenago, nahiz eta gai hori aspalditik dagoela saldu nahi diguten.*

*Guretzat erantzukizun kontua da zalantzak sortzen dituen eta ziurtasunetan baino gehiago promesetan bilduta iristen den prozesu baten aurrean.*

*Horregatik guztiagatik, EH Bilduk egindako proposamena osoko bilkuran bozkatu ahal izateko legezko formula bilatzea eskatzen dugu; izan ere, uste dugu proposamen guztiek aukera berberak izan behar dituztela eta gertatutakoaren aurrean babesik gabe sentitzen garela.*

*El pasado 25 de noviembre, día de denuncia de la violencia contra las mujeres y día en que quienes componemos las concejalías de EH Bildu estábamos ocupadas organizando las actividades del día, recibimos del ayuntamiento una convocatoria extraordinaria para celebrar comisiones. Uno de los puntos se refería a una Propuesta de Acuerdo respecto a la gestión del servicio del ciclo integral del agua para el Polígono Industrial de Murga- Consorcio de Aguas.*

*Al día siguiente comenzamos a preparar las comisiones y nos encontramos con que la anteriormente mencionada comisión se componía de 12 archivos alguno de los cuales eran extensos y redactados con lenguaje jurídico, lo que requería una atenta lectura. Al día siguiente, 27, hicimos una petición al ayuntamiento para que, referido al tema de la gestión del agua, se introdujera para votarla otra propuesta de acuerdo sobre la mencionada gestión.*





*Durante la celebración de las comisiones se nos hizo saber que nuestra propuesta no se iba a votar en el pleno extraordinario porque esta debía haberse enviado 48 horas hábiles antes de las comisiones.*

*Consideramos que es imposible en el tiempo dado hacer una correcta gestión del acuerdo que proponía el PNV a su votación, prisas que abundan en la trayectoria que está teniendo la aprobación de la disolución del CAKU y la incorporación a URBIDE donde parece que se quiere evitar la reflexión sobre las consecuencias del paso a dar. Lo que desde EH Bildu venimos diciendo desde que este punto se ha puesto sobre la mesa es la necesidad de tiempo suficiente para abordarlo en profundidad, para contrastar pros y contras, porque estamos hablando de un acuerdo con muchas repercusiones a futuro en nuestra ciudadanía.*

*Nos estamos jugando la gestión eficiente del agua y esta es una cuestión de entidad como para dar el tiempo suficiente para aclarar extremos. Seguir adelante con la incorporación a Urbide a ritmos forzados supone en la práctica usurpar a las administraciones implicadas ya la ciudadanía información y capacidad de debate.*

*Se nos dirá que esta cuestión ya ha pasado por foros previos, pero todas y todos sabemos que el debate real sobre este asunto ha llegado en forma de acuerdo, de sí o no a la incorporación, y es entonces cuando se ha suscitado el debate, no antes, por mucho que se nos quiera vender que esta cuestión lleva tiempo presente. Para nosotras y nosotros es una cuestión de responsabilidad ante un proceso que suscita dudas y que llega envuelto en promesas más que en certezas.*

*Por todo ello, pedimos que se busque la fórmula legal para poder votar en el pleno la propuesta hecha por EH Bildu ya que pensamos que todas las propuestas han de tener las mismas oportunidades y que nos sentimos en situación de indefensión ante lo sucedido.*

### ***EH Bildu Aiara”***

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du Batzordeen eguneko gai-zerrenda, ohikoa denez, aurretiazko bi egun balioduneko epean igorri zela. Edonola ere, eta azaldu den moduan, EH Bildu taldearen proposamena bozkatuko da, eta, ondoren, Batzordearen proposamena eta irizpena, aurrekoan onetsi zen moduan.

Jarraian bozkatu egin da 2020ko azaroaren 27an EH Bildu udal-taldeak aurkeztutako erabaki-proposamena, goian transkribatutakoa. Horren alde bozkatzen dute AIARA BATUZ eta EH Bildu udal-taldeak, eta aurka EAJ-PNV udal-taldeak. Beraz, ez da onetsi.

Iratxe Parro Uzqiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak eguneko gai-zerrendako puntu honi dagokion testu bat irakurri du, haien iritziaren ingurukoa. Horrek honako hau dio:

***“AIARA BATUZ, 2020ko ABENDUAREN 7ko EZOHICO BILKURAKO 4. PUNTUAREN INGURUKO IRITZIA***

*Murga industrialderako uraren ziklo integralaren zerbitzua kudeatzeko erabaki-proposamenari dagokionez, Aiara Batuz taldeak 2020ko azaroaren 30ean egindako ezohiko informazio batzordean adierazi zuen abstenitu egingo zela. Izan ere, orain arte ez zaigu uraren eta saneamenduaren inguruko iritzirik eskatu.*

*Udal-hauteskundearen ondoren, Aiarako Udalak bere funtzionamendu politikoa antolatu zuen. Egin ziren izendapenen artean, Kantauriko Urkidetza Partzuergorako (CAKU) ordezkari*



*bat izendatu zen; izan ere, duela urte batzuk Udalak uraren kudeaketa CAKUri esleitu zion eta partzuergaturik dago.*

*Dirudienez, Aiarako Udala ordezkatzan duen pertsonak, Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak, CAKUren gobernu-organoei jakinarazi zion Udalbatzaren iritzia, zegozkion gaiak eztabaidatu ondoren.*

*Gaur egun, EAJ-PNV taldeak duenez gehiengo absolutua Udalean, amaierako erabakia, gaiak aztertu ondoren, EAJ-PNV taldearen aldeko botoarekin erabakitzen dena izango da. Dena den, hori ez da errealitatea. Aiara Batzuek behin baino gehiagotan eskatu du Partzuergoan egiten den kudeaketaren inguruko informazioa emateko eta estatutuak aldatzeko ere eskatu izan du, partzuergatutako Administrazio Batzordeek ordezkarietza handiagoa izan dezaten.*

*Urteak daramatzagu bertan hartzen diren erabakien berri jakin gabe, alkateak egiten den Gobernu Batzorde eta Batzar Nagusi bakoitzean ematen duen botoan parte hartu gabe. Ordezkaririk honek bere alderdiak edo berak nahi duen botoa ematen du soilik.*

*Hala ere, orain landu behar dugun gaia oso garrantzitsua da eta ezin du ordezkariak bakarrik erabaki, udalbatzaren erabakiaren bidez erabaki behar du, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legeak ezartzen duen bezala. Izan ere, 123.1f artikuluan adierazten du Udalbatzari dagokiola udalerriaz gaindiko antolakundeetan parte-hartzeari buruzko erabakiak hartzea eta Udalbatzako kideen legezko zenbatekoaren gehiengo absolutuaren aldeko botoa izan beharko duela.*

*Eta, ziurrenik, Legeak ezarritakoagatik eta ez gure ordezkariak CAKU gainerako talde politikoen inguruan duen iritziarengatik, ezohiko bilkura honetan gaude, abenduaren 10a baino lehen bozkatzan (ostegun hau da); izan ere, CAKUren Batzar Nagusira egun horretan egingo da. Guk orain honako gai hauek bozkatu behar ditugu:*

*CAKUren organo eskudunari hori ezabatu edo desagerraraztea, bere estatutuen 42. artikuluen 1 atalaren d) epigrafean adierazitako kausagatik.*

*CAKUren organo eskudunak ez balu hori desagerraraztea erabakiko bere estatutuen 42. artikuluen 1. Atalaren d) epigrafean adierazitako kausagatik, Aiarako Udala CAKUtik bereiziko da.*

*CAKUren Batzar Nagusiak onetsiko balu desegitea, proposatzen da hori organo horrek "likidaziorik gabeko desegitea" modalitatean egitea, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 127. artikuluen 5. atalean ezarritako moduan. Horrela, aktibo eta pasibo guztiak juridikoki egokia den sektore publikoko beste erakunde bati lagako zaizkio, horretan CAKU osatzen zuten erakundeek sartzera erabakitzen badute Uraren Ziklo Osoarekin lotutako zerbitzuak emateko.*

*Onestea udalaren kudeaketa mantentzea Murga industrialdeko uren saneamendua, hornikuntza eta depuraziorako zerbitzua ematen jarraitzeko, elementu baten bidez: Partzuergoa.*

*Onestea Aiarako Udala "Arabako Ur Partzuergoa" (URBIDEA) Partzuergora batzea eta horren indarrean dauden estatutuak onestea.*

*Atzo ezohiko batzordea egin zen eta bertan ezohiko bilkura honetan lantzeko gaia ezarri zen. Horretan, alkateak berak esan zuen "egitekoa zen" gai bat zela. Baina egitekoa bazen, guk galdetzen duguna da zergatik utzi dugun horrela, udala osatzen dugun guztion artean gaia landu gabe pasa den atera arte. Ura eta horren kudeaketa garrantzia handiko gaia da, eta, horren inguruan, 2020ko uztailaren 13an CAKUren Gobernu Batzordeak agindu zion partzuergoko tokiko erakundeek ordezkariari Aiaraldean uraren gobernantzaren inguruko hausnarketa estrategikoari dagozkion gogoetak hedatzeko; hori datozen urteetan egingo da eta erabakia plangintza hidrologikoan ezarritako azpiegituren gauzatzean dago oinarrituta. Udalak CAKU*



*duen ordezkariak ez dio jaramonik egin, eta, gainera, CAKUren Gobernu Batzordeak, 2020ko urriaren 16an egindako bilkuran, gaur bozkatuko den akordio-proposamena Batzar Nagusira eramatearen aldeko irizpena eman zuenean, ordezkariak mahai ganean utzi zuen 2020ko azaroaren 30era arte (egun horretan, Udalak berak, erakunde kudeatzaile gisa, bere jarrera jakinarazi behar zion).*

*Uste dugu gobernu taldeak gaiaren kudeaketa oso txarra egin duela. Udalbatzaren erabakiaren emaitza aurretiaz dakigunez (dugun gehiengo osoagatik), ura den herritarrentzako oinarritzko ondasun baten kudeaketa landu behar dugu, gaiaren inguruan gainerako politikoeekin ezer adostu gabe. Urak eta horren kudeaketak azterketa, eztabaida, kontsultak, proposamenak, etab. behar ditu.*

*Badakigu EAJ-PNV alderdiak, ez EAJ-PNV Aiarak, Arabako partzuergo bakarraren alde egiten duela, egunkarietan ikusi dugu. Beste behin, ikusten dugu Aiarak ez duela garrantzirik, edo gainerakoek duten garrantzia, baina Arabako eremu guztiak ez dira berdinak. Baliteke elementu idealena partzuergo bakarra ezartzea, baina agian ez.*

*Horren garrantzitsuak diren erabakiak hartzeko, ezinbestekoa da informazioa izatea eta denbora nahikoarekin azterketak egitea.*

*Aiara Batuz taldeak ez du aintzat hartuko erabaki-proposamena egokia den edo ez, ez horren denbora gutxirekin, ez informaziorik gabe, ez Udalean eztabaidatu gabe, ez urtetan zehar parte hartu gabe, ordezkariak nahi duena egin eta desegin duelako.*

*Elkarrekin egindako analisi bat egin behar izanen genuke, hainbat batzordetan, proposamenaren aldeko udalbatzaren erabakian oinarritutakoa.*

***Gaur, horrela landuta, gu abstenitu egingo gara alkateak eta bere taldeak egindako kudeaketa txarragatik”.***

Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak, irakurritako testuari dagokionez, adierazi du ados dagoela gaia behar bezala aztertu eta eztabaidatzeko denbora gutxi egon delako adierazpenarekin. Esan du oso adierazgarria iruditzen zaiola alkateak orain gaiaren inguruan eztabaidatu nahi ez izatea, eta horrek argi uzten duela alderdi nagusiak Udalean oposizioarekiko duen garrantzia. Aintzat hartzen du informazioa modu batean edo bestean bideratuta egon dela eta erabakia aurretiaz hartuta zegoela. Gaineratu du momentu oro presio handia ezarri dela bozketa egiteko, beldurra erabilita. Era berean, uste du honako hau ez dela horren gai garrantzitsua lantzeko modua. Amaitzeko, adierazi du denbora gehiago eskatzen jarraituko dutela, ezezkoa jaso arren.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak bere taldeak gai honen inguruan duen jarrera arrazoitzeko testu bat irakurri du. Horrek honako hau dio:

*“-2000/60 Uraren Esparru Zuzentaraua bete behar dugu.  
- “nahi duguna da zerbitzu onena prezio onenean lortzea”  
- “edateko uraren kudeaketa beti publikoa izatea eta inoiz pribatizatu ahal izateko zirikiturik ez uztea”.-*

*“Markijana eta Basurbeko HUAk abian egongo dira 2020 edo 2021erako eta fakturretan aldaketa handia eragingo dute; izan ere, urtean bi milioi euroren inguruan hitz egiten ari gara, eta horri aurrea hartu behar diogu. Horregatik, martxoan jardunaldi batzok antolatu genituen eta horietan adierazi nahi genuen etorkizunean jasan beharko genuena eta uraren kudeaketaren*



*eredu bat definitzeko beharra. Bi alternatiba daude: arroaren eredia, Urduñatik Bilbora Nerbioi osotasun gisa hartuko lukeena, eta Bizkaiko hiriburuko Uren Partzuergoan sartzera eramango lukeena, edo Arabari lotutako administrazio-eredua, lurralde osoko partzuergoak kudeatzeko probintzia-erakunde batean pentsatzea ahalbidetuko lukeena, bai eta kudeaketa-aginduen, hitzarmenen edo antzekoen bitarteko irtenbideak ere. Edonola ere, eredu bat definitzea ezinbestekoa da, haraneko egungo ur partzuergoak ez duela erronka honi aurre egiteko gaitasunik. Halere, argi dagoena da kostua ikaragarri haziko dela". (Diario de Noticias de Alava)*

**-2000/60 Uraren Esparru Zuzentzaraua**

*o Ura ez da ondasun komertzial bat, babestu eta defendatu beharreko ondarea da, eta hala tratatu behar dugu.*

*o Zuzentzarau honen arrakasta Aldundiaren, Estatu kideen eta tokiko agintaritzen, baita informazioaren, kontsulten eta publikoaren parte-hartzearen (erabiltzaileak barne hartuta) arabera izan beharko da eta koherentea izan beharko da.*

*o Uraren hornikuntza interes orokorreko zerbitzu bat da, «Europar interes orokorreko zerbitzuak» Batzordearen Jakinarazpenean.*

*o Uren politika eraginkor eta koherente batek kontuan izan behar du kostetatik eta estuarioetatik hurbil dauden ur-ekosistemen zaurgarritasuna, edo golfo edo itsaso nahiko itxietan dauden ekosistemen zaurgarritasuna; izan ere, eremu horien guztien oreka, neurri handi batean, eremu horietara isurtzen diren ur kontinentalen kalitatearen mende dago. Arro hidrografikoetan uraren egoera babesteak onura ekonomikoak ekarriko ditu, arrain-populazioak babesten laguntzen baitu, baita haien habitata kostetatik hurbil dutenak ere.*

*o Ingurumena babesteko, beharrezkoa da uren alderdi kualitatiboak eta kuantitatiboak, bai azalekoak, bai lurpekoak, gehiago integratzea, ziklo hidrologikoaren barruan urak berezko dituen isurketa-baldintzak kontuan hartuta.*

*- **Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoa** uraren ziklo integrala kudeatzeko Partzuergo bat da eta Goi-Nerbioiko Eskualdean erakunde kudeatzaileak batzeko eta Uraren Esparru Zuzentzarauaren arabera ezarritako eraginkortasun/efizientzia kudeatzeko, hornitze/saneamendu eta kostuen eraginaren gaiak momentu bakoitzean lantzeko. Momentu hartan genituen betebeharrak asetzeko oso erabilgarria izan zen, hornikuntzako sarea altan/bajan zegoenean kudeatzen baitzuen. Arazoa sortu zen nahitaez sartu behar zenean saneamendua altan zegoenean jarduteko eta horren sistema martxan jartzeko betebeharra. Gai hori atzean utzi dugu, baina eredu gisa definituta egon behar du Goi-Nerbioiko arazketa-instalazioetara iristeko 2025ean. Iidea hori azken urteotan landu egin dugu. 2010. hamarkadaren inguruan etorkizuneko errealitatearen inguruko lehenengo azterketa ekonomikoak egin ziren. Beste partzuergo batzuetan dauden aukera guztiak aztertu dira. Ezinezkoa da bakarrik joatea txikien artean.*

*- Partzuergoak: kontrastatutako kudeaketa eraginkorreko ereduak dira. EH Bilduk gobernatutako udal eta erakundeak ere (Orduña, adibidez) eredu horren barruan daude, Gipuzkoan zein Bizkaian. Arabako errealitatea konplexuagoa da, 51 udal egoteaz gain, arlo honetan eskuduntza duten 336 Administrazio Batzorde daudelako.*

*Ur Partzuergoarekiko hurbilekoak diren ereduak:*

*- Bilboaldeko Ur Partzuergoak Bizkaiko biztanleriaren % 91,26 adierazten du (Euskal Autonomia Erkidegoko % 48,20= milioi 1 biztanle). 81 udalerri, Bizkaiko Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzarenak.*

*- Amvisa. Gasteizko Udal Urak SA. Tokian tokikoan oinarritutako tokiko eredu bat. Arabako biztanleriaren % 79.*



- *Urbide. Arabako Partzuergoa. 76. Ura altan jasotzen dute lehen bezala. Bakoitzak kudeatzen du bajako sarea.*

- ***Kantauriko Urkidetza Partzuergoa eredia** elementu espezifikoko gisa uraren kudeaketan (hornikuntza) oso ondo joan da eta Aiara bajako sarea sartu baino lehen eta ondoren oso eroso egon da. Esperientzia oso positiboa izan da, maila teknikoan zein kudeaketa mailan.*

### **Egoera berria**

- ***Eskuduntza-esparrua.** Proposatzen dena ez da arlo honen eskuduntzari uko egitea. Kudeaketaren enkomienda bat egiten da bi aldeen hainbat betebeharrekin (orain arte Kantauriko Urkidetza Partzuergoarekin egin den moduan). Prozesuaren uneren batean hori utzi nahi bada, kudeaketa berreskuratu da, ez delako inoiz galdu eskuduntza.*

- *Ordezkarritasuna. Partzuergo honek ordezkargarritasun eredu baten alde egiten du; bertan elementu guztiak daude ordezkaturik (txikienak ere) eta Aiara ordezkaturik egongo da, biztanleen arabera.*

- ***Saneamendua iristean kostu handiagoa.** Europako esparru-zuzentarau bat dago eta tarifaren kostuan eragina izateko betebeharra ezartzen du. Estatuak ordaintzen duen 66 milioi euro baino gehiagoko obra, Eusko Jaurlaritzaren ekarpenarekin lursailak erostean (2.400.000 euro). Horrez gain, urtean 2 milioi euroko mantentze-lanen kostua ekarriko du gutxi gorabehera araztegi berrietan. Eskualdeko biztanle-masarekin tasa zazpitan biderkatu beharko genuke horren kudeaketari aurre egin ahal izateko.*

- ***Kostuak berreskuratzea.** Gaur egun zerbitzuaren kostuak tarifyan eragiten du (Hornikuntza-alta eta baja- eta estolderia-saneamendua). Saneamenduan hondakin-urak araztu behar direnean, horrek gure gain har ditzakegun tasak exijitzen ditu. Gure aukera bakarra partzuergo handiago batera aldatzea da.*

### **Urbidek honako hau bermatzen du:**

- ***AFARA atxikitzea***
- ***Urbidek etorkizunean ura kudeatzeko kostua (araztegiak) lurralde-orekako politikak aplikatuta hain handia ez izatea eragingo luke.***
- ***Kalitatezko zerbitzu PUBLIKOAK ematea bermatzen du"***

Iratxe Parro Uzquiano (EH Bildu) zinegotzi andreak adierazi du ez dakiela zergatik EAJ-PNV taldeak ez duen azterketa hori Udaltzaren gainerako kideekin partekatatu.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun dio azterketa hori aurreko legegintzaldian egindako jardunaldietan eman zela, baita Amurrioko Antzokian zein Batzordean egindako jardunaldietan ere.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak errepikatu du gainerako hiru talde politikoei eman ez zaien azterketa dela.

Koldo Mendioroz Goldaraz (EH Bildu) zinegotzi jaunak esan du jendearekin hitz egin behar dugula. Adierazi du ura kudeatzeko bi modu daudela: zentralizatua eta deszentralizatua.



Zentralizatua da batzordeak proposatu duena, kudeaketa bakarra lurralde osorako; hau da, erakunde bakar bat izango litzateke arabar guztien kudeaketa egingo lukeena. Gaineratu du akats bat iruditzen zaiola proposamen horren alde bozkatzea, arabarrek baliabideak galduko dizutelako eta Urbidek ez duelako gaitasunik, gaur egun, uraren erabateko kudeaketa egiteko. Amaitzeko, sei hilabeteko luzamendua eskatu du azterketa hobea egiteko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du Koldo Mendioroz zinegotzi jauna pribatizazioaz hitz egiten ari dela, baina hemen kudeaketaren enkomienda bat egiten ari garela. Horrez gain, Administrazio Batzordeek bere erabakiak hartzen dituzte bere eskumenak baliatuta.

Gai honen aldeko irizpena eman zuen Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio Batzordeak, 2020ko azaroaren 30ean eginiko ezohiko bilkuran. Aldeko botoa eman zuten EAJ-PNV udal-taldeko ordezkariak eta aurkakoa EH Bildu udal-taldekoek; AIARA BATUZ udal-taldea abstenitu egin zen.

Esku-hartzeak amaitzean, EAJ-PNV udal-taldeko ordezkarien aldeko botoekin (gehiengo osoa osatzen dute), EH Bildu udal-taldeko ordezkarien aurkako botoarekin eta AIARA BATUZ udal-taldeko ordezkariaren abstentzioarekin, honako erabaki hau hartu da:

**LEHENENGOA.**- Kantauriko Urkidetza Partzuergoa (CAKU) den organo eskudunari proposatzea zerbitzua uztea, bere estatutueta 42. artikuluko 1. ataleko d) epigrafean aipatzen den arrazoiagatik; izan ere, CAKUk ondorioztatu duenez, partzuergoaren beraren nahiz partzuergoa osatzen duten erakundearen interes publikoaren kontrakotzat jotzen da haren jarraipena, espedientearen dauden txosten eta dokumentuetan oinarrituta.

**BIGARRENA.**- Kantauriko Urkidetza Partzuergoa (CAKU) den organo eskudunak ez badu partzuergoa desegitea edo iraungitzea erabakitzen, bere estatutueta 42. artikuluko 1. ataleko d) epigrafean aipatzen den arrazoiagatik, Aiarako Udala Kantauriko Urkidetza Partzuergotik (CAKU) bereiziko dira, azaldutako arrazoiengatik. Gainera, bereizketa erabaki hau partzuergoko gobernu-organoren gorenari igorriko zaio, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 125.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aiarako Udaleko alkate/udalburuari berariaz emango zaio baimena eta ardura dagozkion legezko ekintza guztiak egin ditzan, aipatutako akordioa errealitate bihurtzeko. Ardura horien barnean, hala badagokio, beharrezko bereizketa-kuota ezarri, negoziatu eta onestea egongo da, baita Partzuergoak berak emandako zerbitzuaren emateko trantsizio-epea negoziatzea ere. Horrez gain, bereizketaren data ezarri beharko du eta beharrezkoak diren legezko ekintza guztiak ezarri eta gauzatu administrazio-egoitzan zein dagokion lege-egoitzan Udalaren eskubideak defendatzeko. Era berean, Udalbatzari egindako guztia jakinarazi beharko dio.

**HIRUGARRENA.**- CAKUren Batzar Nagusiak desegitea onetsiz gero, organo horrek “likidaziorik gabeko iraungitze” modalitatean desegitea erabakitzea proposatzen da, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 127. artikulua 5. paragrafoan aurreikusitako moduan. Horrek esan nahi du aktiboak eta pasiboak erabat lagako zaizkiola juridikoki egokia den sektore publikoko beste erakunde bati, non CAKU osatzen zuten erakundeek Uraren ziklo integralarekin lotutako zerbitzuak emateko sartzera erabakitzen baitute.



Kantauriko Urkidetza Partzuergoa (CAKU) **izanen da arduradun bakarra eta bertako funtzionario edo lan-kontratadunek lan harremanean jarraituko dutela bermatu beharko du**, atxikipen, subrogazio edo zuzenbidean baliozkoa den beste edozein formularen bidez.

**LAUGARRENA**.- Murga industrialdeko uraren hornidura, saneamendu eta arazketarako udal zerbitzuaren jarraipena onestea. Figura horietako baten bidez, partzuergoaren bidez alegia, Eusko Legebiltzarraren apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 101. eta 104. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera; izan ere, ezinezkoa da zerbitzua zuzeneko kudeaketaren bidez ematea, CAKUk aurkeztutako dokumentazioan azaldutako bideragarritasun-, eraginkortasun- edo eraginkortasun-arrazoiengatik.

**BOSGARRENA**.- Onestea Aiarako Udala “Arabako Ur Partzuergoa” (URBIDE) partzuergoan sartzea eta bertan indarrean dauden estatutuak onartzea.

Aipatutako Partzuergora atxikitzea udalerriko Murga industrialdeko auzokide eta erabiltzaileei zerbitzua ematearen arabera egingo da. Honako zerbitzu hauek eman beharko dira:

- Lehenengo mailako Sareko Ur-hornidura, “Alta” hornidura edo Adukzio Zerbitzua: Biltze edo argiztapen lanak, urtegia, garraioa, tratamendua eta azken erabiltzaile handietaraino edo banaketa-sareko biltegi nagusietaraino eramatea.
- Ur-hornidura bigarren mailako sarean, hornidura “baja” egoeran edo banaketa zerbitzuan: Biltegi (lehenengo mailako sarean hornitutako ura) eta hodi bidez azken erabiltzaileen instalazio pribatuekin (etxeak, dendak, industriak eta gainerako establezimenduak) lotzen duten hartuneetara banatzeko funtzioak biltzen ditu.
- Saneamendua Lehenengo mailako Sarean edo Intertzeptazio eta Arazketa Zerbitzuan: Kolektore eta hodi biltzaile orokorrak (estolderia hondakin-uren araztegiekin lotzen dutenak), arazketa-sistemak (hondakinak tratatzeko eta ezabatzeko instalazio erantsi guztiak barne) eta hustubideak (araztutako ura ur-ingurunera itzultzen dutenak) hartzen ditu.

Saneamendua bigarren mailako sarean edo estolderian: Etxeetako, industriako eta industriako hartuneetako hondakin urak biltzen ditu, baita inbormal eta hustubideetakoak ere, eta oinarrizko saneamendu sarera edo, hala badagokio, ur ingurune naturalera isurtzen ditu.

Atxikitzeak esan nahi du Arabako Ur Partzuergoak (URBIDE) ezarritako eta horren Batzar Nagusiak 2019ko urriaren 28ko bileran adostutako baldintzak berariaz onetsitako direla.

“Likidaziorik gabeko uztea” gertatzekotan, URBIDERI emandako zenbateko ekonomikoak ondasun eta eskubideen banku-saldu eta inbentarioen dagozkien ziurtagiriekin egiaztatu beharko dira eta horren aktiboen barne sartuko dira. Edonola ere, horien sailkapena eta aurrekontu-partida eta indarrean dauden kontabilitate publikoko arauen arabera dagokion kontabilitate-partidan egoztea gorabehera, aipatutako zenbatekoak oso-osorik gauzatu beharreko jarduketetara egongo dira loturik, CAKUaren erakundeek URBIDERI bertan sartzegatik egindako ekarpenetan.



Aipatutako jarduketak funts horiekin gauzatzean, ezingo da Arabako Ur Partzuergoak onetsitako etorkizuneko ekintzak esleitzean eragin ekonomikorik izan, horiek funts orokorrekin finantzatzen badira.

**SEIGARRENA**.- Erakunde honen ordezkari gisa izendatzea GENTZA ALAMILLO UDAETA jn. URBIDE Partzuergoa eta horren administrazio- eta gobernu-organoetan. Horren ordezkaria izango da JOSÉ ANTONIO BARTOLOMÉ PESQUERA jn.

**ZAZPIGARRENA**.- Berriazko baimena ematea alkate/udalburuari erabaki hau osorik bete dadin beharrezko dokumentu publiko edo pribatu guztiak sinatu eta beharrezko jarduketa guztiak egiteko, tokiko erakunde hau “Arabako Ur Partzuergoan” (URBIDE) sartzeko.

**5.- Lantenoko Eskolako bi altzari zaharberritzeko obrari ekiteko Lantenoko Administrazio Batzordearekin sinatutako hitzarmen-proposamena**.- Jarraian, Udalbatzari Lantenoko Eskolako bi altzari zaharberritzeko obrari ekiteko Lantenoko Administrazio Batzordearekin egindako hitzarmenari buruzko proposamenaren berri eman zaio. Horrek honako hau dio:

#### **“ERABAKI-PROPOSAMENA**

**AINZAT HARTU DA**.- Aiarako Udalaren interes publikoa udalerrri osoko ondare historiko-artistikoa mantendu eta sustatzeko.

**IKUSI DA**.- Lantenoko Administrazio Batzordea Lantenoko Eskolari dagozkion altzariak berritzeko obra egiten ari da, mapa jarraituen bilkariak dituztenak. Bi armairu berdin daude; bat mutilen gelan erabiltzen zen eta beste bat nesken gelan.

**IKUSI DA**.- Lantenoko Administrazio Batzordeak Aiarako Udalari laguntza ekonomikoa eskatu dio, aipatutako Administrazio Batzordeak obra hori egiteko behar duen zenbatekoaren % 50ekoa.

**AINZAT HARTU DA**.- 2020ko udal-aurrekontuan hitzarmen honek eragiten dituen gastuei aurre egiteko behar besteko kreditu egokia dago 943.734002 partidari.

Horregatik guztiagatik, Udalbatza Osoari proposatu zaio honako ERABAKI hau hartzea:

**Lehenengoa**.- Onestea Aiarako Udalaren eta Lantenoko Administrazio Batzordearen arteko Lankidetzeta-hitzarmena, Lantenoko eskoletako mapak jasotzen dituzten altzariak berritzeko obra egiteko. *Horren testua honako hau da:*

**“AIARAKO UDALAREN ETA LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZORDEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, LANTENOKO ESKOLETAKO MAPAK JASOTZEN DITUZTEN ALTZARIAK BERRITZEKO OBRA EGITEKO”**

Arespalditzan, 2020ko abenduaren (e)(a)n.

**HONAKO HAUEK BILDU DIRA**





Alde batetik, **GENTZA ALAMILLO UDAETA jn.**, adinez nagusikoa, **AIARAKO UDALEKO** alkate-udalburu gisa.

Beste alde batetik, **IRATXE PARRO UZQUIANO andrea**, adinez nagusikoa, **LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZORDEKO** errejidore-presidente gisa.

### **ESKU HARTZEN DUTE**

Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkartzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.

Bigarrenak, Lantenoko Administrazio Batzordearen izenean eta ordezkartzan, tokiko erakunde horren izenean eta ordezkartzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Arabako Lurralde Historikoko Herri-Batzarrei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren arabera. (1995eko martxoaren 31ko ALHAO, 38. zk.).

Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta Lankidetzaren Hitzarmen hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako

### **HAU ADIERAZTEN DUTE:**

**LEHENENGOA.- LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA** da Lantenoko eskolaren jabea. Eskola 1897an eraiki zen, Lanteno herrirako fundazio gisa. 1961ean Amurrioko Jabetzako Erregistroan inskribatu zen, Lanteno herriaren izenean. 1969an itxi zen eta harrezkero herriko haurrak Artziniegako eskolara joan izan dira. Egun herriko kultur-elkarte gehieneko egoitza da. Eraikin eklektiko bat da, espazio nagusi bat duena eta atxikitako bi espazio dituena. Oin nagusi bat du eta bertara sartzeko bi arrapala simetriko daude fatxada nagusian; bigarren solairuan etxebizitzak daude. Erdiko gorputzean beste solairu bat dago teilatupearen aurretik. Gorputz nagusiaren estalkipean erlojua dago, gaur egun martxan dagoena. Lehenengo solairuan eskolak daude, erdiko gorputza aisiarako guneko gisa dutela, eta alboetako gorputzak mutilen eta nesken gela gisa, hurrenez hurren.

**IKUSI DA.- LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA** Lantenoko Eskolari dagozkion altzariak berritzeko obra egiten ari da, mapa jarraituen bilkariak dituztenak. Bi armairu berdinean daude; bat mutilen gelan erabiltzen zen eta beste bat nesken gelan.

Altzariak, arbel gisa, bi oinez daude ertsita eta gainean giltzaz itxirik dauden bi ate dituen kaxa bat dago. Konifero-zurez eginda daude, eta badirudi ez daudela jatorrian bernizatuta, linaza-motako olio bakarrik babestuta.

Apaindura soila du, atea osatzen dituzten kuarteroien moldurak soilik nabarmentzen dira, eta albokoak, berriz, pinakulu modura biribildutako gezi baten formakoak.

**HIRUGARRENA.- LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA** honako finantza-plan hau gauzatzen ari da aipatutako obran:

**OBRAREN KOSTUA, GUZTIRA:** 31.641,50 euro.



Arabako Foru Aldundiak emandako dirulaguntza: 25.022,80 €  
Hitzarmen honen bidez Aiarako Udalak emandako dirulaguntza: 3.309,35 €  
Lantenoko Administrazio Batzordearen berezko funtsak: 3.309,35 €

**LAUGARRENA.-** Aipatutako inbertsioa 2020ko abenduaren 31n amaiturik egon beharko du.

Aiarako Udalaren interesekoa da Udalerri osoko Ondare Historiko-artistikoa mantentzen laguntzea; beraz, honako akordio hauek:

**LEHENENGOA.-** Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da AIARAKO UDALAREN eta LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZARRAREN arteko lankidetzaren formalizatzea, Lantenoko eskola zaharretako bi altzari zaharberitzeko lanei ekiteko. Altzari horiek mapa jarraituen bidez bilkari bat dute.

**BIGARRENA.-**

**AIARAKO UDALAK** garatu beharreko sustapen jardueraren edukia, 2020ko ekitaldi honetan, aipatu lehengoratzeko lanak dakartzen gastuen zati txiki bat diruz laguntzea da.

**HIRUGARRENA.-**

**LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA** da obra honen kontratazioaz eta horren gauzatzeaz arduratzen den sustatzailea, eta bukatuta egon behar du 2020ko abenduaren 31n; Administrazio Batzordeak, hitzarmen hau sinatzean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen araudia bete duela deklaratu du; lege horren bidez, Europako Parlamentuaren 2014ko otsailaren 26ko eta Europako Kontseilu Juridikoaren 2014ko otsailaren eta Esleipenaren abenduaren 26ko Zuzentaraua ezarri dira.

2020rako lankidetzaren hitzarmen honi dagokion udal dirulaguntza **3.309,35 eurokoa** da.

**LAUGARRENA.-**

Dirulaguntza hau ordaintzeko modua jarraian adierazitakoa da:

- Aiarako Udalak emandako dirulaguntzaren % 100 ordainduko dio Lantenoko Administrazio Batzordeari, hitzarmen honen BOSGARREN KLAUSULAN adierazitako dokumentazioa aurkeztu eta funtsen erabilera behar bezala justifikatu ondoren.

Ordainketa egin **baino lehen**, Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da, edo, horrelakorik ezean, baimena, Udalak eskatu diezaien informazio hori erakundeei.

Aiarako Udalak edonoz eskatu ahalko du bidezko zatitza jotzen duen edozein informazio.

**QUINTA.-**



**DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA** Aiarako Udaletxean aurkeztu beharko da, **2021eko urtarrilaren 31** baino lehen, baina gastuak dirulaguntza eman den urte naturala amaitu baino lehen egin beharko dira, hau da, 2020an.

Eskatutako justifikazioa adierazitako epean aurkezten ez bada, dirulaguntza ezeztatuko da eta aldez aurretik ordaindutako kopuruak itzultzeko prozedura hasiko da.

Udalaren dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO**, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako dirulaguntza guztien aitortpena.
- b) Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen agiria, edo, horrelakorik ezean, baimena, Udalak eska diezaien informazio hori erakundeei.
- c) Jardueraren garapenari buruzko honako dokumentazio hau:
  - Egindako jarduerari buruzko memoria.
  - Jardueraren gastuen eta dirusarreraren balantzea, beste erakunde publiko batzuen eta zuzenbide pribatuko barne. Gainfinantzaketarik izanez gero, emandako dirulaguntza dagokion zenbatekoan gutxituko da.
    - legez ezarritako baldintzak bete behar dituzten gastu aitortuen fakturak. Faktura ordaindu izanaren egiaztatzea erantsi beharko da.

#### **SEIGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena**

Hitzarmen honek 2020ko abenduaren 31 arte iraungo du.

#### **ZAZPIGARRENA.-**

**LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZORDEAK** egiten duen publizitate guztian, Aiarako Udalaren lankidetzeta eta babesa jaso beharko da.

#### **ZORTZIGARRENA.-**

**LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZORDEAK** hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen dirulaguntzei buruzko araudian aurreikusitako erantzukizun eta zehapen erregimena aplikatuko da.

Eta adostutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzeta hitzarmen honen hiru aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo urratzerik gabe, dokumentu hau osatzen duten 4 orrialdeetako bakoitzean, eta hitzematzen dute berau beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean.

**ALKATE-UDALBURUA.-** Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

**LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZORDEAREN PRESIDENTE ERREJIDOREA.-**  
Sin.: Iratxe Parro Uzquiano.

**AIARAKO UDALEKO IDAZKARIA.-** Sin.: M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas.

*Elektronikoki sinatutako dokumentua.*

**Bigarrena.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.



**Hirugarrena**.- Erabaki honen berri emango zaio Lantenoko Administrazio Batzordeari.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.”

Gai honen inguruko irizpena eman zen 2020ko azaroaren 30eko Hirigintza Obrak Eta Zerbitzuak Eta Ingurumena Batzordearen ezohiko bilkuran.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, erabaki-proposamena idatzi den moduan onestea.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta berrogeita hamabost minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeiko abenduaren zazpian.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA

Sin.: M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas.